ARRASATE

# Urteko kronologia

## Urtarrila

**11 ▪ Aita Menni ospitaleko Egonaldi Ertainetarako Unitatearen inaugurazioa**

Eraikin berriak hilabete batetik hasi eta gehienez urte bateko egonaldia eskaintzen du.

**29 ▪ Kolektorea egiten hasi ziren**

Deba eta Aramaio erreketara botatzen diren ur-zikinak batuko dituen kolektorea egiten hasi ziren Takoloko biribila eta Fagor Elektratresnak lantegiaren arteko zatian.

## Otsaila

**2 ▪ Etxebizitzak alokatzeko web orria**

Azken urteetan kanpotik Eskola Politeknikora ikasten datozen ikasleek etxebizitzak alokatzeko izan dituzten zailtasunak ekidin nahirik, Eskola Politeknikoak Arrasaten hutsik dauden etxebizitzen zerrenda jasotzen duen web orria estreinatu zuen.

## Martxoa

**31 ▪ Goiena Komunikazio Zerbitzuaren batzarra**

Goiena Komunikazio zerbitzuak kooperatiba elkartearen lehen batzar nagusia egin zuen.



**Mondragon Unibertsitatearen campus berria Ordizian**

Mondragon Unibertsitateak (MU) campus berria inauguratu zuen Ordizian apirilean. Ekitaldian izan ziren, besteak beste, Mondragon Unibertsitateko errektore Javier Retegi, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Hezkuntza sailburu ohi Inaxio Oliveri eta Ordiziako alkate Alejandra Iturrioz. Mekanikako Industria Ingeniaritza Teknikoko ikasketak emango dituzte hor.

## Apirila

**1 ▪ San Juan de Dios ospitaleko langileen mobilizazioak**

Lan baldintza kaskarrak salatzeko asmoarekin, San Juan de Dios ospitaleko langileek mobilizazioak egin zituzten.

**18 ▪ Campus berria Ordizian**

Mondragon Unibertsitateak Ordiziako Goierri Goi Maila Eskolarekin sinatu hitzarmenaren arabera, datorren ikasturtean Mekanikako Industria Ingeniaritza Teknikoko ikasketak eskainiko dira.

## Maiatza

**2 ▪ Amaia antzokia egokitu dute**

Amaia antzokiak ateak itxi zituen zenbait egokitzapen eta konponketa egiteko. Zortzi hilabeteren buruan segurtasun neurri berriak jartzea zen helburua.

**4 ▪ Makatzena auzoa berritzeko proiektua**

Gobernu batzordeak erabakita, Makatzena auzoa berrizteko proiektua martxan jarri zen.

**26 ▪ Elkartasun Eguna**

Seber Altube enparantzan Elkartasun Eguna ospatu zen hirugarren urtez jarraian.

## Ekaina

**12 ▪ Tabernarien Elkartearen bilkura berezia**

Arrasateko Tabernarien Elkarteak bilera berezia egin zuen azken aldian hainbat tabernari Udalak jarri dizkien isunak eztabaidatzeko. Izan ere, Arrasateko lau tabernari (Gure Leku, Branka, Doke eta Arrogoi) 500.000 eta 1.300.000 pezeta bitarteko isunak jarri zizkieten, gehiegitxo aipatu elkartearen arabera.

## Uztaila

**2 ▪ Gipuzkoako Batzar Nagusia izan zen udaletxean**

Gipuzkoako Batzar Nagusia herriko udaletxean elkartu zen eta bertan izan ziren, besteak beste, Roman Sudupe Gipuzkoako diputatu nagusia eta Iñaki Alkiza Batzar Nagusiko burua.

Mondragoen, 1877. urtean egin behar zen Gipuzkoako herrien batzarra, baina Foruak kendu zituztela-eta, azkenean ez zen iragarritako bilerarik egin. 103 urte geroago, Gipuzkoako herrietako ordezkariak berriro elkartu eta Arrasaten batzea erabaki zuten. 22 urte igaro ondoren, Gipuzkoako Batzarrak berriro itzuli dira, sozietateen gaineko zergak aldatzeko asmoarekin.

HIRE
Liburu eta paperdenda
Bidairako eta narruzko artikuluak
Iturriotz, 4
Tel.: 943 79 14 84 - ARRASATE

OKINDEGIA
MENDIZABAL
Sebero Altube, 2 - © 943 798960
ARRASATE
Kalebarren, 10 - © 943 752091
Baltegieta, 6 - © 943 751399
SORALUZE

EGUNEROKO MENUAK ETA KARTA
ALDAPE TABERNA
Iturriotz, 41
☎ 943 79 70 41
20500 ARRASATE

ARGI-PLASTIK
Leiho Fabrikazioa, P.V.C., Aluminio Termikoa, Poliuretanoa
ERAKUSKETA ETA LANTEGIA:
Zigarrola, 1 - 8. pab.
Tel./Faxa: 943 77 11 30
☎ 943 79 62 18
20500 ARRASATE
EGOITZAK:
San Pelayo, 22 - ☎ 943 17 33 08
48260 ERMUA
Zamakoa, 15 - ☎ 94 475 00 11
48960 GALDAKAO

★ Euskal Herriko areto guztietako filmak
★ Estreinaldiak ★ Kritikak
www.Egunkaria.com/zinema

Esk
ESKER SINDIKALEN KONBERJENTZIA
Bizkorra, zuzena, eraginkorra
Garibai, 14 - 4. • ARRASATE • Tel.: 943 79 92 43
Artekale 1 - behea • BERGARA • Tel.: 943 76 13 65

M
MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK
FEMUR-OÑATI Tel.: 943 71 80 80 Faxa: 943 71 80 45
ARRASATE Tel.: 943 71 24 25 Faxa: 943 71 22 98
ARETXABALETA Tel.: 943 71 24 11 Faxa: 943 71 21 19

TOLDOS LETE C/B
© 943 79 23 83
ARRASATE